

2020. urteko diru-laguntzen deialdia

Esparrua:

KULTURA

Diru-laguntza arloa:

Diru laguntza kultur jardueretarako

1. artikulua. Esparrua eta xedea

Kultura Sailak, bere esparruaren barruan, diru-laguntza arlo baterako deialdia egin du kultur jarduerak sustatzeko, udalaren jardueraren osagarri izango diren sustapen eta zabalkunde kulturalako ekimenei laguntzeko.

2. artikulua. Aplikatzeko arauak

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Kulturaren sustapenarekin eta zabalkundearekin lotutako jarduerak edo programak Bilbon burutu nahi dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteek eska dezakete.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- Auzoko jaiak, Aratusteak, Erregeen Kabalgatak, Olentzero, San Juan Gauak eta jaien arlokoak soilik diren jarduerak antolatzen dituztenak
- IGEak eta ikastetxeak

3.2. Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean **(2020ko otsailaren 17an)**, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakunde Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua).

Salbuespenez, bere egoitza soziala udalerrian ez duen irabazi asmorik gabeko elkarte batek, beraz, udal erregistroan erregistratuta ez dagoenak, diru-laguntza eskatzen badu Bilbon jardueraren bat modu puntualean egiteko, nahitaez erregistratu beharko da Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan.

3.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitzen diren diru-laguntzak Bilboko Udalak 2020ko ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorraren aurrekontu-kodearen kontura 2020/00012 eta 2020 51000 4 00012 00 2020 gastu proiektura finantzaren dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 129.200 € da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diru-laguntza jaso dezakeen kontzeptuari aplikatuko zaion erregimena norgehiagoka da:

- Norgehiagoka-erregimenean, aurkeztutako eskabideak erkatu eta horien lehentasun-ordena ezarriko da, 9. artikuluan agertu diren irizpideen arabera. Horrela, baloraziorik onena izan duten eskabideei diru-laguntza emango zaie, deialdian finkatutako diru-laguntzaren gehieneko dotazioa inola ere gainditu gabe.

5.2. Gutxienekora helduta (30 puntu), programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberako kopurua emango zaie, honako taula honekin bat etorrira:

Programari emandako puntuak	Emango zaion diru-laguntzaren %a
80 puntutik gora	Eskatutakoaren % 100
70 eta 80 puntu bitartean	Eskatutakoaren % 80
70 puntutik behera	Eskatutakoaren % 70

6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak

Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak hauek dira: kulturaren sustapen eta zabalkunde sektorialerako (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea eta ondarea, arte plastikoak, sustapen zientifikoa eta abar) eta dinamizazio soziokulturalerako, jarduera kulturala auzoan edo barrutian sustatzeko eta abarrerako jarduerak eta programak.

Ez dira diruz laguntzekoak izango inbertsio arloko gastuak.

Programa bakoitzeko gehienezko diru-kopurua **7.000 eurokoa** izango da. Diru-laguntzen eskatzaileak programa bakar bat baino ezin izango du aurkeztu.

7. artikulua. Eskariak

7.1. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta **2020ko otsailaren 17an** amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren garedentasun-atarian: (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen bitartez.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla

7.5. Diru-laguntza eskariak ezin dute gaintitu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehieneko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gaintitu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

7.8 Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da,.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3. Eskara sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzako Erakundeen Erregistroan erregistratuta ez dauden entitateek beste dokumentazio hau ere aurkeztu beharko dute:

- Beste erregistro batean izena eman duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Entitatearen estatutuen fotokopia.

8.6. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideak.....GUZTIRA 80 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 45 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Udal Sailen ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat etortzea; partaide-kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza eta teknologia berrien erabilera; eremu geografikoa; programaren iraupena; kolektibo hartzailea; programaren egonkortzea (aurrez landutako programen kasuan); beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea; jarduera non gauzatzen den.

b) Programaren diseinuaren kalitatea. Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: zer emaitza lortzea espero den, programa zenbateraino bete den jakiteko eta ebaluatzeko adierazleak, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak).

c) Aurrekontua egokia izatea. Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (beste finantziario-iturri batzuk bilatzea), baliabideak modu eraginkorrean egokitzea, eta programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna. Gehienez 15 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Elebidunentzako euskarazko jarduerak antolatzea, programak gazteen partaidetza integratzea, programan genero-ikuspegia kontuan hartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea, jardueren memoria sexuaren arabera banakatzea, jarduerak udalerriko kultura-aniztasuna aintzat hartzea, programa etorkinen elkarteetan eta/edo etorkinei laguntzeko elkarteetan zabaltzea, proiektuak multzo edo kolektibo desberdinen arteko harremanak lantzea, proiektuak atzeritarrek parte hartzea errazteko ekintza bereziak edo moldaketak edukitzea, programak pertsona guztientzako eskuragarritasuna ziurtatzeko neurriak izatea.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioaGUZTIRA 20 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan parte hartzea, bazkideek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Kultura Saileko Administrazio Prozesuen eta Kalitatearen Zuzendariordetza.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: KULTURA SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Idazkaria: ADMINISTRAZIO PROZESUEN ETA KALITATEAREN ZUZENDARIORDETZA

Kideak: SAILEKO ZUZENDARIA ETA KULTUR PROGRAMAZIOKO ZUZENDARIORDEA

10.3. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4. Instrukzio-organoak, espediente eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren %70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-oso, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jasoko da, hau dioena:

Bilboko Udalak finantzatu du proiektu hau. Hala ere, edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna da.

Erakundeei Bilboko Udaleko sailek emango diete Udalaren logotipoa.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikokoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

Norgehiagoka kasuetan, entitate onuradunak programa, proiektu edo ekintzan egindako gastuaren kontu justifikagarria aurkeztu beharko du, ondoren aipatzen den moduan.

Justifikatzeko kontuak hauxe izan behar du:

- a) Programa gauzatzeko egin diren jardueren memoria eta izandako emaitzak. Honakoak erantsita bereziki:
- Egindako jardueren kopurua
 - Kontratutako taldeen/artisten edo hizlarien kopurua, sexuen edo jatorriaren arabera bananduta.
 - Jardueretako parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta adin-tartearen (umeak, helduak eta adinekoak) bananduta.

Eskaeran aurkeztutako programarekin bat etorriko da hori guztia.

- b) Programaren gauzaperari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, udalak emandako eredia erabilia.
- c) Programa betetzeko fakturak, udalak emandako ereduari jarraituta.
- d) Programa betearazteko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, diru-laguntzak deialdiaren bidez emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hauek desberdinduko dira:
- Programarekin zuzenean lotutako kostuak: oso-osorik justifikatu beharko dira, faktura originalen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez.

Gastuak justifikatzeko agiritan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programaren betearazpenarekin.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira justifikazio-agiriak.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonen noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Ordainsaria 200€ euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langileen gastuak justifikatzeko nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuen kasuan, beren beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, entitate onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrita eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa.
 - Justifikazioa egiteko, onar daitekeen zeharkako kostuen portzentajea diru-laguntza emateko oinarria izan den aurrekontuan entitateak azaldutako bera izango da eta benetan justifikatutako gastu zuzenen gainean aplikatuko da.
- e) Diruz laguntzeko moduko kontzeptu baten zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruz dauden legeetan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak¹ baino handiagoa bada, erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez.

Eskaintza horietako bat aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aplikatu behar dira. Alde horretatik, eskaintzak justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntza jasotzeko eskarian aurkeztu behar dira, eta, proposamen ekonomiko onena aukeratzeko ez bada, memorian berariaz justifikatu behar da.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazioa aurkezteko betekizuna betetzen ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada, edota publizitate-betebeharra eta zabalkunde neurriak betetzen ez badira (14. artikulua arabera), erakunde onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dagozkien berandutze-interesak barne, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 37.1 artikuluan ezarritako moduan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

¹Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikiak 40.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZik gabe), baldin eta obra-kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak (BEZik gabe), horniketa edo zerbitzu-kontratuak badira.

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.